

## ARESTIREN OROITZAPENETAN

*Bilbon, Maiatzak 31, 1985*

*Fr. L. Villasante*

1968ko Urtarrilaren 26an Euskaltzaindiak batzarrea egin zuen hemen, Bilbon, Erribera kaleko etxe zaharrean, noski, eta bertan Aresti jaunak adierazi zuen, bere urrezko ezteiak ospatzeko, Euskaltzaindiak euskeraren batasuna aztertu eta erabaki behar zuela. Ikus **Euskera** (1971), 166. Arestiren eskeari men eginez, hala egin zen Arantzazuko Biltzarrean, eta guztiok daki-gu handik ilkitako oldarrak nolako ondorioak ekarri dituen euskararentzat.

Euskaltzaindiak, mendeurrenez edo urrezko ezteiez kanpora, ez ohi du ospatu beste urte-mugarik. Hala ere, kasu honetan, aurten Aresti hil zela hamar urte betetzen direlarik, eta bera bilbotarra izanik eta batzarrea Bilbon eta, gainera, egoitza berrian egiten delarik, halako oroitzapen bat egin behar zitzaiola uste izan dugu.



## GABRIEL ARESTIK BESTE HIZKUNTZETATIK EGIN ZITUEN POESI ITZULPENAK

*Bilbo, 1985-V-31*

*J. San Martin*

Edozein egileren lana ezagutzeko, hain beharrezko ez bada ere, lagungarri da non eta zelako ikastaroak egin zituen eta aurrez nondik elikatua zen. Iturburu horien artean garrantzizkoenetakoak dira itzulpenak.

G. Aresti zena poesiagintzan nabarmendu zen euskal literaturan eta beste hizkuntzetatik euskarara itzuli zituen lanen berri emango dut txosten honean, urratu zituen bideak, bere ibilia erakutsiko digunez.

1974. urtean J. M. Torrealdayk G. Arestiri egin zion inkesta batean, idazten noiz hasi zen eta idazle eredugarriak nortzuk ziren galdetzean: 1954. urtean, Joyce, Valery, Eliot, etc., erantzun zion (A. Zelaieta, *Gabriel Aresti*, II, 255-256 orr.). Orduan, bertan, bere ustezko hamar idazle handienak nortzuk ziren galdetzean, ez zuen nahi erantzuna ematerik. Ez omen zuen preferentziarik. Hala ere, ukatu ezinezko bihurtzen zaizkio garapenarako erabili zituen irakurketak eta itzuli zituen autoreak bere gogoaren araberako zirenez adierazgarri iduritzen zaizkigu.

Aipatu zuen urte horretan hasiko zen idazten, *Euzko-gogoa* aldizkarian (1954), itzulpenekin eta beragandik sortarazitako lantxoekin. Baina, itzulpenok ez ziren aipatutako idazle horienak, ez da ere guziak garai eta giro berekoak. Charles Baudelaire, William Shakespeare eta Paul Verlaine izan bai ziren lehenik. Ondotik, aldizkari berean: Juan Ramón Jiménez eta Johann W. v. Goetheren poema laburrak.

Handik bi urtera *Egan* aldizkarian kolaboratzen hasiko zen, 1956ko azken zenbakian Gabriela Mistral-en poema bat agertuz. Berriz ere Baudelaire-ri helduko dio eta *Les Fleurs du Mal*-etik bi poemaren itzulpenak emango zituen. Urte berean Norbert Tauer-i idatzi zion hungarozko metodo eskariz, Lajos Zilahy zuzenean irakurri ahal izateko.

Bi urte geroago, 1958.eko *Egan*-en Marqués de Santillana-ren "Serranilla X" itzultzean bazirudien aintzinakoetara jotzen hasia zela, baina ez zen holakorik gertatuko. 1959an Aita Santi Onaindiak *Olerti* aldizkaria sortu zuen eta bere lehen alean Antonio Machado-ren "Barteko ametsa" agertu zen. Hortik aurrera bere ametsek ere beste bide bat hartu zuten. Zer bait han-

diago egiteko asmoa eta gure egunetako kezkarri atxekitzea. Une horretarako hasia zuen *Maldan behera*, *Egan*-en 1961ean “Zuzenbide debekatua” zeritzan poemarekin hasia, eta zenbaki berean Angela Figuera, Bladi Otero, Gabriel Zelaia eta Jose Mari Basaldua-ren poema batzuk itzuliz.

Urte horretan Norbert Tauer-i idatzi zion gutun batean zion: “Blas Oteroren olerki guztiak euskeratzen ari naiz”. Baina, gaur egun ez dugu horien berririk. Baizik, soil soilki *Egan*-en 1962an (4-6 zenb., 190-199 orr.) argitaratu zituenak, Bladi Otero berak eginikako hautaeraren zatia.

Arestiren hurrengo pausoa *Harri eta Herri* burutzea izango zen, 1963.ean saritua eta urtebete geroago argitaratua. Anartean, antzerkigintzari ere emana zen eta itzulpen lanetan geldialdi bat nabari da. Hala ere, 1967. urtean Alfred de Musset-en hiru poema, aspaldi euskaratuak nonbait, *Egan*-en (1-6 zenb., 53-55 orr.) argitara eman zituen.

Garai hartan, Arestik, inoiz aitortu zidan Cervantes-en *Kixote Mantxakoa* itzultzen hasteko gogo, bere ustez munduko literatur obra nagusiak euskaratzea hizkuntzaren ospe eta aberasgarri zelako. Nik ordea, burutik kendu nahi nion, hemen guziok gaztelera hain ongi dakigunez pekatu larria iduritzen zaidala esaten nion. Baina langintza hortara sartu ez bazen obraren luzeagatik izan zen.

Hirurogeigarren urtea edo izango zen Xesus Alonso Montero Euskaltzaindiaren egoitzara agertu zenean euskaldunekin harremanetan jarri nahirik. Egun hartan antzerkia bultzatzeko asmotan euskaltzale talde bat bildurik geunden eta Gabriel eta biokin mintzatu zen. Nik, egungo eguneraino adiskidetasuna gorde badut ere, Arestirekin harreman estuagoak izan zituen. Haren bidez ezagutu zuen Celso Emilio Ferreiro-ren obra, Blas de Otero-renakin batean hainbeste eragipen izango zuena *Harri eta Herri* burutzeko. Barakaldoko Gailego etxearekin harremanak ere orduz geroztikoak zituen eta gailegoeraren letra egunak ospatzean kasik urtero ematen zuen hitzaldiren bat. X. Alonso Montero-rekiko harremana ezinbestekoa bihurtuko zen geroko urteetan lau edo bost hizkuntzatan agertuko ziren liburuetan euskararekin partaidetza izateko. Gainera, horietarik lehena Aresti berak agertua izango zen, nere liburutegian aurkitu zuen Tomas Meaberenetik hasia. 1968an berak sortu zuen Kriselu argitaldariaren bidez gaztelera, euskaraz, gailegoz eta katalaneraz agertuko zuen *14 alegia*, liburuaren azalean honako hau idatziz:

*Cierra los ojos muy suave,  
meabe,  
pestaña contra pestaña:  
sólo es español quien sabe,  
meabe,  
las cuatro lenguas de España.*

Aburu hori baliagarria bihurtuko zitzaien bai Arestiri eta bai Alonso Monterori. Oroï honek bete ziola gailegozko itzulpena eta euskal antzerkia bultzarazi nahirik ibili zen R. Salvat-ek katalanera.

Baina, liburu itzulien artean badira olerkitik bestelakoak ere: F. Marcos de Portela-ren *Nekazariaren dotrina* (O Catecismo do labrego), Gabrielek 1969an bere kontura argitaratu "J. M. Iparragirre" sariagatik Ministeriotik jaso zuen diruz ordaindua; eta Alfonso Rodriguez Castelao-ren *Nós*, X. Alonso Montero-ren hitzaurrez eta zuzendaritzapean Ediciones Júcar-ek 1974an argitaratua, Castelao berak eginiko laurogetahamalau dibujoren oin idatziak dira, jatorriko galegoaz gainera gazteleraz, katalaneraz eta euskaraz ipiniak. Gainerakoan, Aresti, poesiakoei itsatsiago aurkituko dugu.

Donostiako Lur Editorialak Arantxa Urretavizcayaren hitzaurrez argitaratuko zion, 1971. urtean, Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak eta beste zenbait poema* deritzana.

Handik hiru urtetara, lau hizkuntzatan argitaratu zuen Akal Editor etxeak F. Garcia Lorca-ren *Seis poemas galegos* eta euskarazko itzulpena Gabrielena da. Azkenik, ohitura horri jarraituz ez ezik Iberiako Penintsula guziaz sartu nahirik Coruñaeko Ediciós do Castro delakoak 1975ean Valentin Paz-Andrade-ren *Pranto matricial* (Arestik *Uma-oncitic negarra* titulatu zuena) argitaratuko zuen Castelao zenaren oroitzapenez, baina gure Gabriel apenaz heldu zen argitalpen hori ezagutzera, urte hortako Maiatzean hil bai zen.

1968an Bilbon sortu zen Kriselu izeneko antzerki talde batek Bertolt Brecht-en *Xixtima zoriontsu* bat aurkeztu zuen, Gabriel Arestik euskaratua. Baina, nik dakidanik apenaz argitaratu da. Ez dut haren berririk.

Asterix liburuak itzultzen ere hasi zen, baina hasi bakarrik, horiek burutzea eta argitaratzea Jesus Mari Arrietak bete zuen 1976. urtean.

Boccaccio-ren *Dekameron* zuen beste gogozko bat. Honen antologia labur bat eratu zuen eta L. Haranburu Altunari eman argitara zezan, baina heriotza geroztik publikatu zen. Hil ondorean, Jon Juaristik ikusi zituen bere paperak eta han aurkituak ziren Valle Inclán-en *Hitz Jainkotarrak* (*Divinas Palabras*), 1969an itzulia eta Curros Enríquez-en *Jostirudi Jainkotarra* (*O divino sainete*), datarik gabe. Horiez gainera T. S. Eliot-en *Lau Quartetto* (*Four Quartets*), 1973an itzulia, euskara idatziaren batasuna bizkortzen ez zelako *Nekazariaren dotrina*-kin (F. Marcos da Portela-rena) 1969an protesta gisa asmatu zuen ortografia berri batean idatzia.

Euskal literaturatik mundu zabalera gehien hedatu dena, zalantzarik gabe, G. Arestiren "Nire aitaren etxea" izan da Tübingen-en irakasle den Patxi Oroz Arizkurenek lortu dituen itzulpenen bidez. Horregatik uste nuen merezi zuela Arestik berak besteetarik gurea itzulia zehaztasunez biltzea, zer nondik eta norengandik noiz eta non eman zuen.

Obrek ohoratzen dute gizona. Zeren, obrak dirade amore, ez hitz onen kolore.

## ITZULPENEN ZERRENDA

## Aldizkariak

- Euzko-gogoa*: 1954-V-133. orr., Charles Baudelaire, "Dance dans la prière" (Erreguzko dantza).
- Euzko-gogoa*: 1954-V-164. orr., William Shakespeare, "CIXgarren sonetua".
- Euzko-gogoa*: 1954-V-166. orr., Ch. Baudelaire, "Gauontzak" (Les hiboux). Jon Bilboaren *Eusko Bibliographia* delakoan *bijoux*, "bitxiak" dakar *hiboux*, "hontzak" jarri beharrean.
- Euzko-gogoa*: 1954-V-166. orr., Paul Verlaine, "Udazken-kantua" (Chanson d'Automne).
- Euzko-gogoa*: 1955-VI-2. orr., Juan Ramón Jiménez, "Ezer ez" (Soneto spiritualetarik).
- Euzko-gogoa*: 1955-VI-85. orr., Iohann W. V. Goethe, "Ilhargiari" (Lied bat).
- Egan*: 1956, 5-6 zenb., 72. orr., Gabriela Mistral, "Korta".
- Egan*: 1957, 3-4 zenb., 148-152 orr., Charles Baudelaire, *Les Fleurs du Mal*-etik bi poema, "Bedeinkazioa" eta "Tristurazko madrigala".
- Egan*: 1958, 3-6 zenb., 148. orr., Marqués de Santillana, "Serranilla X".
- Egan*: 1961, 1-3 zenb., 21-45 orr., Angela Figuera, Bladi Otero, Gabriel Zelaia eta Jose Mari Basaldua, "Erderazko lau poeta, bi gipuzkoar eta beste bi bizkaitar".
- Egan*: 1967, 1-6 zenb., 53-55 orr., Alfred de Musset, "Musset'en hiru bertso": 1. Andaluz (L. Andalousse). 2. Barberinaren kantua (Chanson de Barberine). 3. Gogoratu! (Rappelle-toi!).

*Oleri*: 1959-I, 63. orr., Antonio Machado, "Barteko ametsa".

## Liburuak

- Tomas Meabe, *14 alegia (14 fábulas)*, Kriselu. Bilbao, 1968.  
20 × 20 zm., 171 orr.  
Lau hizkuntzatan: Gazteleraz Meaberen orijinala, G. Arestiren euskal itzulpena, gailgozkoa X. Alonso Montero eta katalanezkoa Ricard Salvat-ek. Dionisio Blanco-ren irudiekin.
- F. Marcos da Portela, *Nekazariaren dotrina (O catecismo do labrego)*. F. Markos da Portela basoko teologian doktoreak gailgez konpondua, eta Gabriel Arestik euskaratua. Kriselu. Bilbao, 1969.  
19 × 12,5 zm., 72 orr.  
Garai berean edizio berdina egin zuen gazteleraz.
- Nazim Hikmet, *Lau gartzelak eta beste zenbait poema*. Lur Editoriala. Donostia, 1971.  
18 × 12 zm., 121 orr.  
Arantxa Urretavizcayaren sarrera.
- Castelao (Alonso Rodríguez Castelao), *Nós*. Ediciones Júcar. Madrid, 1974.  
21 × 15,5 zm., 209 orr.  
Xesus Alonso Montero-ren estudiozko hitzaurre luze bat, galegoz eta gazteleraz Castelao-ren bizitza eta lanei buruz, lehen 94. orrialdera arte. Handik aurrera, 97.etik 202.era Castelaoren irudiak galegoz ber-berak jarritako oinekin eta horien itzulpenak gazteleraz, katalanez eta euskaraz, Antonio Buero Vallejo, Ricard Salvat eta Gabriel Arestik eginak.
- Federico García Lorca, *Seis poemas galegos*. Akal Editor. Madrid, 1974.  
17 × 10,5 zm., 47 orr.  
X. Alonso Monteroren zuzendaritzapean eta bere hitzaurrez, Anxel Fole-ren gaztelerazko itzulpena, R. Salvat-ena katalanez eta G. Arestirena euskaraz.
- Valentín Paz-Andrade, *Pranto matricial*. Ediciós do Castro. Coruña, 1975.  
19 × 12,5 zm., 94 orr.  
Bost hizkuntzatan sei poema baizik ez dira. Rafael Dieste-ren hitzaurrea, V. Paz-Andrade-ren poesi orijinala, Guilherme de Almeida-ren portuges itzulpena, G. Arestire-

na euskaraz, Francesc Vallverdú-rena katalanez eta Maria de Villarino-rena gazteleraz. 93-94. orrialdeetan itzultzaileen ohar bio-bibliografikoak datoz. Hasieran Maside-k portretaz Castelao-ren burua eta Souto-ren lau irudi.

Boccaccio, *Dekameronen Ttipia*, Haranburu Altuna Editor. Donostia, 1976. 20,5 × 13,5 zm., 124 orr.

T. S. Eliot, *Eliot euskaraz*. G. Aresti, J. Sarrionaindia eta J. Juaristiren itzulpenak. Hordago Publikapenak. Donostia, 1983. 20,5 × 12 zm., 188 orr.

Jon Juaristik apailatu edizioa. Honen aintzin solasez. Lehenik Thomas Stearns Eliot-en "Lau Quartetto"ak datoz G. Arestiren eskuizkribuaren faksimilez eta ondotik inprimategiko konposaketaz. Aresti zenaren zati honek 27. orrialdetik 115.era osatzen du.

### ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Aresti, G.: "Poesia eta euskal poesia", *Egan*, 1960.

Aresti, G.; Sarrionaindia, J. eta Juaristi, J.: *Eliot euskaraz* (Aintzin solasa Aresti, itzultzaile J. Juaristi), Hordago Publikapenak. Donostia, 1983.

Elkar lanean: *Agiriak. Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez* (Hitzaurrea). Donostia, 1978.

San Martin, J.: *Gogoz*. Donostia, 1978. 356-359 orr.

"Gabriel Aresti. Bere poesien Antologia laburra". *Egan*. 1982. 1-6 zenb., 13-57 orr.

Satrustegi, J. M.: "Batasunaren aldeko Arestiren gutunak". *Euskera*, XXVIII, 1983. 431-444 orr.

"Aresti eta Tauer-en harremanak". *Egan*, 1983. 1-6 zenb., 23-48 orr.

Zelaieta, A.: *Gabriel Aresti* (bi tomo). Donostia, 1976.

---

OHARRA: lantxo hau burutu ondorean, Jokin Zaitegi zenaren agiritegian, Dante-ren *Inferna* komediaren lehenbiziko kantua aurkitu dugu, Piarres Lafitte zenaren eskuz *Euzko-gogoa* aldizkarian argitaratzeko asmoz igorria, baina argitara gabe gelditu zena. Eskuizkribua Euskaltzaindiaren, Azkue Bibliotekan, gordeko da, baina Danteren itzulpen hori *Egan*-en argitaratu ondorean.





**GABRIEL ARESTI:**  
**BILBOKO EUSKALDUNA ETA BATASUNAREN ERAGILEA**

*Bilbo, 1985-V-31*

*Xabier Kintana*

Beraren heriotzaz geroko hamargarren urtean, Gabriel Aresti Segurolaz ofizialki gogoratzea, izan, euskaldun guztiok harekin dugun zorra kitatzeko nahitaezkoa den arren, ba dirudi Euskaltzaindikoaren artean derrigorrago nabarituriko beharra dela, ez baita gutxi izan, Gabrielelek guztiok partaide garen Akademia honetan euskaragatik egindakoa.

Alde batera utziko dut, ez baita hori ene gaia, Arestik idazle gisa egindako lan ugarien eta beraren nortasun bereziaren ezaugarrien aipamena.

Latinezko esakuneak *nemo est propheta in sua terra* dioen arren, Gabrielelek izan duen onspen ia orokorra ikusita, atsotitzari *in suo tempore* erantsi beharko geniokeela ematen du, euskarazko *hil hadi, alaba haite* esara zaharraren bidetik abiatuz.

Gabrielen kasua —F. Krutwig, J. Mirande eta Txillardegirenaz batera— aski berezia izan da euskal literaturaren historian. Alde batetik, lehena ez zen arren, berea jotzen zuen herri-hizkuntzaren berreskuratze-ahaleginaren historia ezohizkoa izan da, geroago anitzen eredu eta ispilu bilakatua. Gaur normala eta arrunta irudi dezake euskaraz ikasteak, baina garai hartan ez, eta segur asko ez legoke gaur egun dagoen giroa orduan giroz kontrako ahalegin bakarti eta ezulertu hura egin ez balitz.

Horrek, bestalde, garbi azaltzen du literatur hizkuntzak ez duela beti zertan ama-hizkuntza izan behar, eta euskaldun berrien lepotik maizegi egotzen den eskasia horrek, hots, hizkuntza ongi ikasiko bada amaren bularretik edoski beharra dagoelakoak, ba du bere barruko gezurraren froga gaur arte inor gutxik seinalatu duen beste gertakari nabari bezain tamaleon ere, hau da, txikitandiko euskaldun erdaldunberriengan. Eta erdaldunberri hitzaz hauexek adierazi nahi ditut, txikitari euskaraz ongi —edo ongi xamar behinik behin— jakin arren, geroagoko erdal erabilera ia erabatekoagatik, gaurko egunean euskaraz urritu, murriztu, motz eta erdi mutu geldituak zaizkigun euskaldun erdaldundu horiek, komunzki —*sí, ya se vasco pero prefiero expresarme*— edo atxakiarik gabe —*me expreso mejor en castellano*— esaten dutenak.

Izan ere, hizkuntzaren tresnatasuna erabileraren poderioan datza. Erabiliago eta ederkiago maneiatzan da, edozein erreminta bezalatsu. Eta mintzairazko moteltasunak, kultura normaleko pertsonengan hasita, usuario eta lanterik eza salatzen du garbiro, hots, erabiltzailearen hizkuntz axolagabetasuna eta kultur ardura txikia.

Bihoa hau hasteko, Gabriel Arestik argi zuen pentsamenduaren inguruko aitzinsolastzat, aurkako froga ugariak gora behera, ez baitira oraindik erabat ixildu gure artean, ez euskal aldean ez eta erdal eremuan ere, idazlearen mintzaira nagusia eta sormen-lanetarako bakarra, txikitandikoa dela behin eta berriz errepikatzen digutenak.

### Aresti bilbotarra

Hiriburu batetan jaiotzeak, ene ustez, baldintzatu egin zuen Gabrielen bizitza. Hizkuntzari doakionez, Arestiren haurtzaroko Bilbo hura, gerra bukatu berrikoa, biologi hitzez esateko, fenotipoz erabat erdalduna zen, genotipo ezkutua euskaldun elementu ugariduna izan arren. Halere, Bilbo hartan, euskararekin zerikusia zuen guztia, hain zuzen, bilbotartasunik txikiena zeriona izaten zen: Parte Zaharrean ibiltzen ziren baserritar eta arrain-saltzaileak batik bat, inguruetatik etorriak gehienak. Bilboko kaletarrak, beren burgese-riaren exenpluari segituz, gaztelaniaz mintzatzan ziren eskuharki eta eksklusiboki. Gaztelania ahalik eta dotoreenaz gainera, etorkinen hizkerari “*pueblerino*” eta dialektal eritiz.

Bertoko kontzientzia politikorik zutenentzat, hori bai, euskara jainkosa garbi eta harrigarria zen, jakite eta zientzi maila abstraktuan garrantzia aitortu beharrekoa, baina halere ukiezina, ezin ikasizkoa, hiztunen erabileratik erabat landa zegokeena eta sinbologi mailan gogoratzekoa, dantza, kirol, gastronomi, mendizale edo kultur talde edo elkarteei izenak emateko egokia —georago haurrekin egingo zenez— baina besterik ez.

Eta sinbolotzat egiten zitzaion ohorea, eguneroko bizitzan ukatzen zioten hiritarrek, euskaraz mintzatzan zenari baserritar edo ezjakin zeritzotelarik.

Gogoan daukagu oraino —batzuk bederen, harrigarria baita gure jendearen ahanzmena— zeintzu eta nolakoak izaten ziren garai hartako “euskaldun” ereduak: Chomin del Regato, arlotadak, Pello Kirten eta antzeko jatorriak. Kalera heldu berria zen burgeseriak, burua jakitun, landu eta ilustraturik agertu nahian edo, deiturretan eta, nolabait harrobide zuen baserritar jatorriaz burla egiten zuen zentzugabeki, batetik, teorian maite omen zuena, praktikan, bestetik, mespreziatuz. Madrildar zentralismoa deitoratzen omen zuen jendeak berak adoratzan zituen mesetakoan mintzamoldeak. Gizarte-psikiatriaz lan ederra egiteko gai polita benetan.

Orduan gauza bat zen euskara, beraren aintzinakotasun miresgarri eta zientzi interesagatik, estudiatzea —hori egiten zuena, kasurik txarrenean esperantista edo landarejale xebleen artean katalogatzen baitzen— eta beste bat, guztiz bestelakoa, euskaraz eguneroko bizitzan mintzatzeko eta normalki erabiltzeko asmoz, ikasten aritzea. Berau, orduko Bilbo hartan xorakeria barkakizun ez baina erokeria osoa zen.

Baina Gabriel, Erasmo Rotterdamekoaren gogoko gaixoari on eritziz, gaur zorionez hainbesteko segizio handia duen bide zailari jarraitu zitzaion, Krutwig, Txillardegí, Lafitte, Peillen eta orduko beste ero txalogarri batzuren antzera.

### Gabriel Arestiren ikasbidea

Euskaraz ikasteko erabili zituen lehen metodoak guztiz garbizaleak ziren, garai hartan garbizale hitzaz adierazi nahi zen mintzaira esoteriko eta absurdua, alegia, *Euzkeltzale-Bazkuna* moduko ero-taldeek erein eta landua.

Guztiok entzun izan diogu inoiz Gabrieli pasadizo xeble hau kondatzen. Dirudenez, behin batean, Deban, jatetxe batetako neska zerbitzariari “*arrautza eli bat gaimelduta*” (*arraultze frijitu parea*, alegia) eskatu ondoren, hark honela erantzun omen zion: “*Perdón señor, pero aquí no hablamos alemán*”.

Zorionez, euskal giro negargarri hartan, Arestik, nora ezean, Euskaltzaindira jo zuen. Bertan, berak holaxe aitorturik, Alfontso Irigoienekin egin zuen topo, eta adiskidetasun horretatik, herri-euskara eta bertsolaritzaren mundu jatorrean sartuz joan zen. Juan San Martinek ere bide horretan laguntza ederra eskaini ziola gauza jakina da, bai eta Labaien jaunak ere begi onez ikusi zuela bilbotar gazte haren baitan zegokeen balioa, etorkizunak ongi frogatua.

Herria, bertsolaritza eta liburu zaharrak, beraz: horiek izan ziren, funtsean, Arestiren ikasbideak.

Bere ohizko herritarrek zokoratzen zuten hizkuntza ikasita, berehalaxe konturatu zen Gabriel zein egoeratan aurkitzen zen euskara: formaz dialektotan zatikatua; hiztunez, intelektual urri batzu salbu, gizarte-mailarik apalenera beharretua; literatur gaietan, erlijiotik landa, balio gutxiko eta kutsu moralistako obratxutara mugatua, salbuespen urriak erregela orokorraren berresle nabariak izanik. Eta atsegín ez zuen egoera horretatik bere hizkuntza ateratzen saiatu zen Aresti.

Bizkaieraz hasita, gipuzkera, lapurtera, zuberuera eta gainerako nafar euskalkiak ere laster ikasi zituen. Idazteko eta obratzeko zerabilen logikak berak, besteren arrazoiak aski izan ez balira ere —Federiko Krutwigek jadanik euskara batuaren premia ongi azpimarratua baitzuen— literatur hizkuntza

bat, guztiontzat berbera, bilatzera bultzatuko zukeen berdinzki. Eta besterik, Mitxelenak oharterazi digunez, bere poesi lanetan eredu batu hori, ia-ia gaurkoxea, erabili eta eskaini zигun Arestik.

Berak lorturiko batasun hori, nolabait inkontzientea izan zela irudi dakiguke, alde bateko eta besteko idazlanetatik, osmosiz edo, isuri eta gatzatua. Ez dago ukatzerik, ene ustez, idazlearen estetika bereziak eta arte-sen pertsonalak eragin handia izan zutela aukera horretan. Egia da, halaber, literatura klasikoa irakurtzeak jakinbide bikainak eman zizkiola euskalkien arteko diferentzietz, antzez eta baterakidetasunez jabetzeko, eta intuizioz, ia konturatzeke, horrela joka zezakeela.

Baina ez da gezurra, era berean, beraren aurretik beste anitz, Kanpion, Azkue, Orixe, Olabide..., antzeko jakituriaz jantziak izan arren, ez zirela beren idatz emaitzetan, ez eta teori mailan ere, Gabrielen ondorioetara heldu. Hori dela eta, Arestiren estetika eta intuiziozko oinarri zabal aberatsean ezarria bazen ere, egilearen pentsalan kontziente eta hausnartuaz ere eraikia zela esan genezake, kasualitateari ia deus utzi gabe.

Kasualitatea ere ez den bezala, bide horretan, 1964.ean Baionan, Txillardegia, Jakin taldearekin eta beste idazle batzurekin biltzea, euskara batzeko lehenbiziko oinarri teoriko-praktikoak ezartzeko.

Baionakoaz gero, Aresti ordurarte batasunagatik praktikan saiatua izanda, buru-belarri aritu zen literatur hizkuntza batuaren oinarri teorikoak ere finkatzen. Bakarrik eta taldelanean.

Horrela, Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak zirela, eta 1968an, beste hoshakizunen artean, Arantzazun Euskararen Batasunerako Batzarre bat antolatzeko proposamena egin zuen, zorionez onartua.

Guztiok dakigunez, batasunaren arazoa, izan, ez zen Arestik asmatua, Euskaltzaindiaren fundazioko Estatutuetan garbi azaltzen baitzen. Baina garbizaleen eraginaz batetik, eta Euskal Herri Osorako ikuskerarik ezaz bestetik, alferrik gertatuak ziren ordurarte Kanpion, Broussain, Azkue, Altube eta Krutwigen proposamenak.

Arestiren meritua, ene aburuz, predikatzen zuena bere idazlanetan bete eta erakustez batera, batasunaren predikua unerik egokienean egitea izan zen. Ordurako, ikastolek, alfabetatze-kanpainak eta idazle berriek gero eta premiazkoago zeukaten ordurarte gutxi batzuk besterik nabari ez zutena: euskara biziko bazen, batu beharra zegoela.

Horretan ere, diziplinazalea zen Aresti. Neurriak eta erabaki egokiak ez dira deus, ondoren bete ezik. Horrexegatik kunplitzeko pausoak ere nahi zituen. Maiz, helburu hori lortu nahirik, gure gizonak izaera holakoxea zuen eta, jarrera pitxiak izaten zituen, egoeraren absurdutasuna horretara hobeki erakutsiko zuelakoan. Hori dela eta, Euskaltzaindiak ortografi kontuan arau zehatzak emateko agertzen zuen zabarkeria iharrotsi nahirik, berak bere libu-

ru batetan (*Euskal Harrian*) tz-ren ordez c grafia erabili zuen, lagunoi esaten zigunez, ea Akademiak, bere idazkera hura, txarto zegoela eta, gaitzestean, batera, ondo idazteko arauak ere eman eta behingoz ortografia finkatzen ote zuen, berak haiek guztiak pozik kunplütuko zituela eta.

Arantzazun erabakirikoen ondoren, hizkuntzaren egoera ikusita, guztiok batera jokatzeari hain premiazkoa zenean, zenbait euskaltzainek eta idazleek idaztarau haiek betetzeko erakusten zuten arduragabetasunak eta gogorik ezak bere senetik ateratzen zuten Gabriel, eta hor ere diziplina-nahia erakutsi zuen argiro: alde horretatik etorri ziren 1970ean Baionan eta Eibarren Bata-sunaren Kutxaren inguruan, hainbeste idazlerekin harrerazi zituen konpromezu eta zinak, euskara batua aurrera eramanez.

Harez gero, Euskaltzaindiak, zenbait aldaketa beharrezko zela medio, batasunaren arazoa bere gain berriz ere hartu zuenean, Aresti aditza batzeko batzordean lehiatsu ibili zen, Axular eta Leizarragaren adiztegiak aztertu eta argitaratuz. Ordu askotako lanak eskaini zituen berak, batzordekideoi argibide estimagarriak emanez, gure zeregina erraztuz.

Hortik landa ere, Gabrielelek zenbait hitzaldi eta literatur lan utzi zituen, batzu polemiko xamarrek, batasunaren defentsan, horietako asko *Anaitasuna* aldizkarian agertuak.

Zoritxarrez, haren eragile-lana, Euskaltzaindian batasun-kontuan behintzat bizi nabaria, haren heriotzaz gero motelduz joan zen pixkanaka, zenbait kasutan, ene irudiko, atzerapauso garbiak ekarriz, Bergaran harturiko akordio ulertezin batzu, esaterako. Euskaltzaindiaren arautze-zereginak ia gelditurik izan ditugu urte askotan, euskarak, ofizialtasuna lortuta, finkatze-arau horiek premiazkoenik izan dituenean, hain zuzen.

Izan daiteke, agintari berriekin ongi egon nahia edo —hori ere norbaitek eskribuz agertu eta proposatu egin baitu noizbait— moteltasun hilgarri horren arrazoietakoa bat izatea, bai eta, ordea, G. Arestik gure artean jadanik bizirik ez irautea ere, hark laster salatuko baitzukeen arazoa, baina, edonola ere, ba dirudi azken aldion, zorionez, berriro ere hasia zaigula Euskaltzaindia arautze-bidean, gramatika-kontuen eta maileguen ortografiaren arduraz.

Dena den, gogoratu besterik ez dut egin nahi, aditza, hikako formetan, oraindik batzeko dugula, eta eginkizun hori ez genukeela gehiago atzeratu behar.

Gaurko bilera Euskaltzaindiaren egoitza berrian egiten dugu, Gabrien jaioterrian. Bilbo izan da, urte askotan, euskararen hilobia, hiri honen demografi eta ekonomi eraginaz bertoko kaletar ohiturak inguruko geografia eta gizarte osoan bizieredu bilakatu ohi direlako.

Arazoi berberetatik Bilbo izango da euskararen zuzpertzeta eta salbabi-dea, Bilbon berreuskalduntze-joera aurrera doan neurrian, batera, inguru osoan ere gauza bera, irradiazioz, hedatuko delako.

Duela urte asko, Zuberoara egindako bidaia baten ondoan, Gabriel Arestik Andolin Eguzkitza bizkaitar euskaldun berriagatik *Munstro bat, munstro bi* izeneko artikulu famatua idatzi zuen, etorkizuneko berreuskalduntzearen sinbolotzat jo genezakeena. Gaur, milaka eta milaka dira, eskola, ikastola, institutu, ikastetxe, euskaltegi eta unibertsitatean euskara eta euskaraz ikasten ari diren munstroak, eta bide horretan laster, agian, ugarienek beren eredu-erregelak ezarri ohi dituztelako, munstroak, bitxiak, esperantista landarejale arraroen kideak, erdara besterik ez dakitenak izango dira, orain arte euskaraz ez jakiteaz, beren ezjakintzaz azken buruan, burgoi eta harro ibili zaizkigun lotsakizunak.

Arestiren Bilbo honetan, gainera, batasunerako pauso zail asko egin izan dira luzaro. Ez dezagun ahanztu *Anaitasuna*-k, Imanol Berriatua eta Gabriel Arestiren ahalegin ordaingabeei esker, batasunaren aldeko burrukan izandako aitzindari-zeregina, geroago, pixkanaka, beste aldizkari batzutura ere zabaldua. Eta zaila izan da, hain zuzen, hemen, Bilbon, Bizkaian, euskararen beharrezko batasunak, neurri batez bizkaitarroi geurea bazterrean uztea eskatzen zigulako. Kontziente izan gara guztiok. Baina Arestik, beste bizkaitar askoren antzera, garbi eduki zuen beti euskara osoaren salbaziorako, bizkaieraren nolabaiteko sakrifizio hori egin beharra zegoela, euskalduna sentitzen baitzen lehenago, Euskal Herri osokoa, Bizkaiko bizkaitar *über alles* hutsa baino.

Aukera hori, bestalde, egin zezakeen, egin zitekeen eta egin daitekeen bakarra da, zentzuz jokatzu gero behintzat. Bestela, geure txokokerien alde egiten dugulakoan, bizkaitarrok, guztion batasunari uko eginez eta Euskal Herri osoaren ondare komunari kalte eginez batera, azken buruan, Bizkaikoari ere, geure-geureari ere, konturatzeke, hondamendia ekarriko genioke, *divide et vincas* zaharra gogoan.

Horrexegatik, egindako buru-ukamenak ematen digun indar moralaz, salatu eta deitoratu egin behar dugu oraino bizkaitar batasun-zaleok, zenbait anaiarriba euskaldunen arduragabetasuna, guk geurean amore eman eta ematen dugun artean, erdi- eta ekialdeko askotxoren euskarak, batua barik, beren txokoko euskalkia baitirudi, zenbait hatzez horniturik. Eta bidea ez da hori.

Amaitzeko, esan dezadan, Aresti moduko askori esker, gaur ba dugula, gazteagook —eginkizun dauden puntuak gora behera— Euskal Herri osorako hizkuntza nazionalaren projektua moldaturik, guztion artean biribildu, osatu eta hobatu beharko duguna.

Gure hizkuntzak ofizialtasuna ere ba du, paperean behintzat, baina hain agintarien egitekoa da, irakaskuntzan eta komunikabideetan bezala, administrazioan, behar den duintasunaz, barka ezineko sintaxi eta ortografi okerrik gabe, karguak eta lanpostuak pertsonal egokiez hornituz, ofizialtasun hori zabalduz eta beteraziz joatea, Autonomi Estatutua eta euskaldunon

eskubideak, erdaldunenak bezain errespetagarri omen direnak, normalki kumpi daitezen.

Hauxe da, nik uste, Gabriel Aresti bilbotar poetari, G. Aresti bizkaitar idazleari, G. Aresti euskaldun literaturgizonari, G. Aresti mundutar orokorri, eta beraren aitaren etxeari ere, egin diezaiekegun omenaldirik handiena. Esan dut.

*A. M. A. G.*





**GABRIEL ARESTIREN**  
**“NERE AITAREN ETXEA DEFENDITUKO DUT”**  
**350 HIZKUNTZETARA ITZULIA**

*Bilbo, 1985-V-31*  
*Jose Antonio Arana Martija*

Hainbat hizkuntzetara itzulitako liburuak eta zati bereziak badira munduan zeharko literaturan, baina Bibliatik aparte, ez dut uste izango denik beste poema bat 350 hizkuntzetara itzulia gure Gabriel Arestirena haina.

Urte bi duela hasi zen Patxi Oroz Arizkuren naparra, Tubingeneko Unibertsitatean hizkuntza erromanikoen irakaslea eta bertako Unibertsital Korallaren zuzendaria asmo bi bete nahian: alde batetik Arestiren poema hizkuntza nagusi batzuetara itzultze asmoetan eta bestetik, herriak erraz kantatzeko zortziko neurrian poemari doinua jartzen. Egia esan, lehendik zegoen musikatuta poema hau, Cordero Castaños jaunak musikatuta zeukan eta, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren konposaketarako sari bat irabazi zuen partitura, hain zuzen, 1978.eko sariketan. Baina Oroz adiskideak ikusi zuena zera zen, nahiz eta musikalari hau ona izan konposaketa aldetik, ez zuela herrikoi izan zitekeen doinurik eman musikagileak. Orduan herri usaineko doinu bat asmatu zuen eta lau ahots nahastuetarako harmonizatu. Partitura honekin eta poemaren hamazazpi itzulpenekin liburuxka bat argitaratu zuen Tubingenen 1983.ean. Salgai jarri zen liburu hau eta berehala agortu, baina badago hemen zeresanik: liburua kaleratu ondoren, 1983.eko Abuztuan, uholde negargarriak gertatu ziren Euskal Herrian, eta argitalpen horren salmentarekin lortu zuen diru kopuru guztia kaltetuen laguntzarako igorri zigun Patxi Orozek 1984.ean.

Lehen argitalpen honek izan zuen arrakasta eta jendearen harrera ona ikusirik, hango Unibertsitateko zuzendaria den Adolf Theis jaunarengana jo zuen Patxi Orozek 60 hizkuntzetako itzulpenekin liburu bat argitaratzea proposatuz eta proiektu hura onartua izan zenez, lanean jarraitu zuen, azkenean 60 hizkuntzetara barik 150etara itzulita liburu berri bat kaleratuz. Liburu hau izan zen Iruñean, Euskaltzaindiaren X. Batzarrean, Oroz Arizkurenek aurkeztu zuena, hori ere orain agortua duguna.

Eta aurrean itzulpenen kopurua 350 hizkuntzetara hedatua delarik, plan to egin duela Orozek esan beharko dugu, eta hirugarren argitalpen bat burutzen ari dela esan. Eusko Jaurlaritzaren babes eta laguntza eske dabil egunotan Patxi Oroz, koedizioz edo Tubingeneko Unibertsitatearekin batera kale-

ratu nahian. Euskaltzaindiak ere parte hartu beharko lukeen proiektu horretan ez dakit, baina Urriaren edo liburuaren aurkezpena Bilbon, Arestiren jaioterrian, eta heriotzaren hamargarren urteurrenean egingo balitz, toki honetan liburu aurkezpen hori antolatzea ez litzateke, ene ustez, desbideratua izango.

Oroz adiskidearengandik eskuratu nuen herenegun gai honi buruzko gutun bat eta utziko didazue, erdaraz, dagoen eran zati aipagarrienak irakurtzen:

*“Aun superada la no pequeña dificultad de encontrar informantes competentes para las diferentes lenguas, se han presentado otros escollos que en algún caso han resultado subjetiva u objetivamente insuperables, lo que explica la ausencia en el libro de lenguas cuya inclusión estaba prevista.*

*Algunas dificultades estaban programadas de antemano: términos inseparables de nuestra civilización y ajenos a lenguas usadas por hablantes de otros mundos que por fortuna todavía no han desaparecido del todo, como korrituak, errentak, interesak; términos vinculados con la flora y fauna de la región o tradición donde ha nacido la poesía, como pinudiak, otsoak; la neta y corriente distinción entre eskuak y besoak que había de poner en aprieto a los traductores a lenguas eslavas —y de regiones muy lejanas, cual Cochabamba— donde se usa un término complejo para ambos. Algún término abstracto, como ganado, sequía, usura obligaría al intérprete a recurrir más de una vez a uno concreto.*

*El término más crítico, más peligroso —en el sentido retórico— había de resultar justizia de justiziarren kontra ‘contra la justicia’. En muchas lenguas, y diría que en la mayoría, ha sido imposible mantener la doble acepción de ‘virtud que inclina a dar a cada uno lo que le pertenece’ y ‘tribunal que ejerce justicia’. En la primera versión al chino figuraba ‘contra el Ministerio de Justicia’, la traducción al bribri reza ‘policíapa yöki’, que no precisa explicación. Algunos traductores han seguido la cómoda y segura senda de la “intentiono facilior”, modificando acaso sin necesidad justiziarren en injustiziarren. En una hoja de información que acompañaba al programa de la Orquesta Sinfónica de Euskadi en su gira por Alemania en octubre pasado encontramos esa facilona versión, con la consiguiente traducción: ‘Gegen die Ungerechtigkeit’.*

*El contenido del poema ha supuesto en algún caso un escollo insuperable. Mientras que la mayoría de los traductores expresan su conformidad con el mensaje del poeta, mientras que algún grupo de exsules patriae ha hecho de la traducción a su lengua una especie de himno patriótico con música propia, otros han mostrado su desacuerdo más o menos radical con el texto. Habría que distinguir varias posturas, separando a quienes ven en el texto una invitación a la lucha y subversión, de quienes por motivos políticos no quieren traducir un texto escrito en una lengua de un grupo minoritario, o de quienes únicamente admiten la traducción del libro de los libros. Interesante es la postura de los informantes disponibles para la traducción a una lengua —que no hace falta que mencione— de Africa del Sur. Unos se han negado a tradu-*

*cir el texto por su contenido subversivo, otros aduciendo la inconveniencia de cantar un himno a la libertad en la lengua de los opresores. Parece un eco del Quomodo cantabimus del salmista.*

*Un verdadero problema es la traducción de Nire aitaren etxea a lenguas de grupos que no tienen casa, sino todo lo más una improvisada choza, o de tribus en las que el padre no pinta nada. El traductor del texto al Hopi, un óptimo conocedor de esa lengua y cultura, ha tenido que traducir "Tngöma i'kingwu" 'Defiendo mi casa'.*

*Pero bueno, como quiera que sea, ya no falta mucho para conseguir que una poesía en euskera "Salga por todo el mundo", pues la edición está prevista para los próximos meses.*

*Entre tanto se está fraguando en mi mente la idea de continuar el débil principio, con un proyecto mucho más ambicioso: Preparar, tomando como punto de partida el texto de las traducciones de Nire aitaren etxea, una especie de "Manual de las lenguas del mundo", con la colaboración de numerosos especialistas. Desde luego que ese proyecto requeriría varios años de trabajo, y sólo me lanzaré a él una vez encontrado el apoyo necesario."*

*Oraingoan bai eman da Etxepareren desira betetzeko urrats luzea: "Heuscara ialgui adi mundura". Eta gure euskararen zabalkunderako Alemaniatic egindako bultzadak merezi du gure aldetik, gutienez, eskerrona.*